




DATU EKONOMIKOAK



Ekoizpenaren bilakaera

Arabako txakolinaren ekoizpenari dagozkion datuek etengabe egin dute gora 1998-20008 epean, bereziki 2004-2005 kanpainara arte. Aldi hartan ekoizpena lau aldiz biderkatu egin zen, 1998ko mahats-bilketako 506 hektolitrotik 2005eko 2.227 hektolitrorara igaroz. Hazkunde horrek nolabaiteko geldialdia pairatu zuen 2005-2006 eta 2007-2008 kanpainetan, klimari lotutako arrazoiak direla eta bildutako mahats kopurua handia galdu zelako.


Arabako txakolinaren ekoizpen bolumenaren bilakaera 1997-2008 epean (HI)



Iturria: Arabako Txakolina Jatorrizko Deitura Babestuen Kontseilu Arauemailea, 2008

Produktu honen ekoizpenaren inguruko bestelako adierazleek bilakaera ezberdina azaltzen dute, ekoizpenari eutsi egiten badiote ere: upategien kopurua betiko 3etatik 5era igaro da duela dutxi, ekoizleen multzoa murriztu egin da, baina 30 inguruan mantentzen da, eta inskribatutako azalera 45 Ha ingurutik dabil.

Arabako txakolinaren upategien eta ekoizleen kopuruaren bilakaera 2003-2008 epean



Iturria: Arabako Txakolina Jatorrizko Deitura Babestuen Kontseilu Arauemailea, 2008

Merkaturatutako ardo motei dagokienez, ardo zurien erabateko nagusitasuna aipatu beharra dago, barne zein kanpo mailan. Azken 2007-2008 kanpaina ardo beltzen kanpo merkataritza martxan jarri da, gehien bat merkatu estatubatuarrera helarazteko.



Arabako txakolinaren komertzializazio bolumenaren bilakaera ardo motaren arabera banatuta 2003-2008 epean (Hl)

		2003/04	2004/05	2005/06	2006/07	2007/08
Barne merkataritza	Zuriak	1.804	2.148	2.002	1.711	1.858
	Gorriak					
	Beltzak					
	Bereziak					
Osoko barne merkataritza		1.804	2.148	2.002	1.711	1.858
Kanpo merkataritza	Zuriak	170	154	225	235	90
	Gorriak					
	Beltzak					300
	Bereziak					
Osoko kanpo merkataritza		170	154	225	235	390
OSOKO MERKATARITZA		1.974	2.302	2.227	1.946	2.248

Iturria: Arabako Txakolina Jatorrizko Deitura Babestuaren Kontseilu Arauemailea, 2008

Jatorrizko deitura honen barne merkataritzak lortutako arrakasta ekonomikoari dagokionez, egiaztatu da ekoizpen bolumenaren antzeko garapena izan duela. Urteek aurrera egin ahala kanpo merkataritzak gero eta balio handiagoa izan du, 2007-2008 kanpainan merkaturatutako guztizkoaren %15 erdietsiz.

Arabako txakolinaren merkataritzaren balio ekonomikoaren bilakaera 2003-2008 epean (€)

	Barne merkataritza	Kanpo merkataritza	Osoko merkataritza
2003/2004	624.184	57.749	681.933
2004/2005	859.160	(*)	(*)
2005/2006	90.000	-	90.000
2006/2007	90.000	94.800	184.800
2007/2008	743.376	136.500	879.876


(*) Kanpaina honetako kanpo merkataritzari dagozkion datu ekonomikorik ez dago.

Iturria: Arabako Txakolina Jatorrizko Deitura Babestuaren Kontseilu Arauemailea, 2008

Komertzializazioari buruzko datuak eskura daudenetik; 2003-2004 kanpainatik, hain zuzen ere, Arabako txakolinaren kanpo salmentak bi aldetan baino ez dira kontzentratu: Europako Batasuna (Alemania eta Frantzia), eta amerikar kontinentea (AEB eta Mexiko). Azkenengo urteetako bilakaerak Europako salmenten geldialdia eta Amerikako esportazioaren hazkundera erakusten dute.



Arabako txakolinaren kanpo merkataritzaren bolumenaren bilakaera kontinenteen arabera banatuta 2003-2008 epean (HI)



Iturria: Arabako Txakolina Jatorrizko Deitura Babestuaren Kontseilu Arauemailea, 2008